

# Eibarko Aratostiak

**Antxiñ'go Jentillen gandik Aratoste zoruak; amaiñ-omonda katetik infarnuko diabruak.**

Horrela hasten zituen Toribio Eixebarriak Aratostieri egindako bertsoak (ikus **Ibiltarizanak** liburuen 197. orrialdean). Toribio izan bai zen, nik dakidenez, Eibarko Aratostieri buruz zerbait idatzirik utzi zigan pertsona bakarra. Maite zituen nonbait jendearen alaiagarri ziren jaiak eta bere idazkietan, bai euskaraz eta bai erdaraz, Aratostieri buruzko berri jakingarriak utzi zituen. Maiz, gertakar zelebreak azalduz. Aipatu dudán liburu hortan bertan, 255. orrialdean, Baista Kojuarekin gertatua dator. Baina, **Viaje por el país de los recuerdos** deritzan liburua dugu gure mende honen lehen partekoa ez ezik joan zen mendearen azkenaldiko ageri asko ematen dituen. Besteak beste, 261. orrialdean adierazi zuen bere garairako Aratostiak zertan oinarritzen ziren, edo Eibarko Aratostien ederrera zertan zen. Arrate eta Noche zeritzan kafetegietan ba omen zen abots ederdu kantari jatorriak eta: "Ganaba ésta del café de Arrate a todas en su especialidad de animadora del carnaval, con originales comparsas, que en competencia con otras cuadrillas, organizaba todos los años, trayendo para el consumo de las criadas, música y letra que duraban en el cartel hasta el año siguiente".

Baina, gure akorduz, neska-meak etxeko zereginetan ez ezik,

gera aurrean mutiko ginenok ere geure errekadugintzan (mandatueta) kalez kale Aratostietan entzun eta ikasitako kantak kantatuz joaten ginen, urrengo urteko kanta berriak lehenagokoa itzali arte. Hala ere, kanta batzuk indar handia izaten zuten eta urteak joanak ere kantatzen genituen. Gehien gustatzen zirenak, inoiz, jendearen eskariz birargitaratzen ziren konparsak.

Toribiok aipatzen zituen konparsak ote dira Eibarko lehenak? Behar bada, bai. Baina hiriko Aratostiak heurak sustrai zaharagoak dituzte.

Hil honen hamabosteko **Hoja del Lunes**-ean nere adiskide J.A. Arana Martijak zionez, gure etnologo eritiz, XVIII. mendearen azkenaldian edo XIX.aren hasieran, burgesiaren eraginez, baserri girotik kaleratu ziren Ihauteriak; hau da, nekazari mundutik hiritartzera. Baina, ni ez naiz uste hortakoa, zeren igazko otsailaren 11kako artikuluan argi ta garbi ageritu nuen, mente l'ardi lehenago egiten ziren Ohatin Unibertsitateko ikasleek artean. 1565ean ospatu zena dugu lekuko.

Dena dela, noizbait, antziritu diak pantomimetatik parodiataraino eroan ziren eta gure mende honen hasieratik ezagutu dira Eibarran kalez kale. **Eguren zuri**, bereziki, umeen pantomimaz osatzen da eta adinekoekin aseartez burutzen dira Aratoste jaiak. Egun honetan, aintzina, entzutea

dugunez, Sardina ehorketa ere egiten omen zen, beste zenbait tokitan ezagutu den eran eta Goyak bere oihaletan utzi zigan horren oroitz. Pertzagileena (kaldereroak) donostiar erara, erderazko kanta bertara aukeratuz egin izan da. Aireplamariarenak 1930ekoak dira, Barberoena eta Armaginena bateratsu ezagutu ziren. Eta, ez naiz oroitzen gehiagoz. Hil honen 17an Tomás Etxaluzek **El Diario Vasco** egunkarian (Eibarko orrian) eman dituen bertsoak oso interesgarriak dira. Ongi litzake zaharagoengandik holako bertsoak bilizte.

Aireplamariarenak, bertso guzaki os-osorik eman nituen **Estenkadak** liburuan eta beste zenbait berri **Bidez** deritzanean. Zortzikoz eginak ziren eta gaur egungo bertsolariak erabiltzen ez duten doinuak. Armaginarenak ordea, bi kanta ziren, bata abaneraz eta bestea zortzikoz. Hemen ere, zortzikoz doinu ez ezagun batean eta merezi du bertsoak bederen gaur hemen jasotzea. Hara:

**Tallar honetan lagun ugari, zeri gerade lanian; zeri egiten dan ikusiz, zera etorri nahi dezuan.**

**Gerri makurtuta nekatzan, egoten gerade astian, jai helteko desiatzen pasatzeko humore onian.**

**Etxian ondo ikusi nahirik eta faltatu ez dein jana; herregaitan egiten degu izardiz betetarik lana.**

**Aste pasau-ta guk etxian emoten degu pozgarria, esanaz: "Amatxo maina, hauxe da nik irabazia".**

Irakurlea ohartuko da Bizkai aldeko euskalkiokak ere, bertso-tan hasten direnean gipuz bertsolarien joera hartzen dutela, usadioaren eraginari jaramon eginez. Esan beharrik ezta bertso horiek polttak direla, baina maizago parodia erabili izan dela.

Berrogi urte ilun haiek atzean utziaz, aurten ere ospatu dezagun Ihauteri, zeren ondorean izan bai du (orain hain gogorra ez bada ere):

**Garizuma zatpi asteke, barau gogorak parte; zuri, alantze izateko... datorren urtera arte!**

Juan SAN MARTIN

El origen de los carnavales se remonta al estadio pastoril, pero en las poblaciones urbanas de nuestro país, probablemente penetró mucho antes de lo que se suponen algunos etnólogos, tal como señalé hace dos años por estas fechas. Hallaremos noticias muy elocuentes en la **Historia de la Universidad de Oñate**, de José A. Lizarralde. El testimonio más concreto viene a ser aquel escandaloso pleito de 1565.

En Eibar, los testimonios escritos que hoy conocemos, son muy tardíos, que no van más

allá de las páginas XIX. Fue Toribio quien recogió algunas divertidas anécdotas de sus obras. En barrés viene el tiaki. Los tres días de lenda. Aratosti jentia zorrotza. Berles son para gente". Sin embargo, lumbrá esa sociedad los textos de verso euskertio. rias **Viaje por el país de los recuerdos**. De los que den extraer información a ción a grupos de personas, sados en torno a un café, con originales músicas y letras. competir entre verdaderas fiestas. haya recogido esas mi part: lo bueno grado, son tres u otras tantas mil. día de la época. aviación, unas y la gran época. sos industriales originales y una

Ha sido muy interesante el relato de los carnavales por Tomás Esteban de Eibar, el río Vasco, ed. Eibar y aún se pueden encontrar personas mayores que las presentes. Que las presentes para animar a la para de un aspecto historia, como es

## Euskarazko kantagintzari buruz solaseo

Lehenago egunean, Bilbon, orduarte behin baino gehiagotan entzuna eta irakurria, bainan pertsonalki ez ezaguna nuen Mikel Orrantirekin hizketan ari nintzela, euskarazko kantagintzari buruz hasi ginen mintzatzen. Guztiz interesatua zegoen, gaur eguneko egoera ezagutu nahiz. "Gauzak txarto daudela konturatzen naiz, eta izugarriko pena hartzeaz gain, mingarri zait benetan zenbait kantari eta estilo interesgarri eta baliosuek osatutako mugimendu bat pikutara joatea".

Eta jarraitu ginen hizketan, bion artean euskarazko kantagintzaren krisisaren alderdiak aztertuz: euskarazko kantagintzarekiko konzeptualizazioa; komunikabideetako egoera negargarria (orokorki begiratua, egon aspalditik egon bait dira lagundu ditugutenak, eta nola lagundu gero!); euskararen egoera eta euskaraz kantatzeak ezartzen ditugun mugak; euskal gizarteak standartzazio musikalerantz azken urteotan darman prozesoa, eta abar...

Hizketaldi luzea ez zen izan, bainan aberatsa. Zenbait komunikabideetako ordezkariekin izaten ditudan hizketaldiak konparatuz gero, askoz ere aberatsago. Lehenago egunean, esaten nion Mikel-i, Anetoak belodromoan "Euskadiko 6 Orduak" ospatzen zirela-ta iruzpallau kanta abestu ondoren, SER-eko kazetari euskaldun bat urreratu zitaidan eta betiko klitxeetan oinarritutako galderak egiten hasi zitaidan. Honelako zerbait izan zen elkarriaketa:

— Adizu, Gorka, irratirako hitz batzuk...  
— Bai...

— Betiko abestiak kantatu dituzu. Horrek esan nahi du ez dutuzela gauza berriak egiten, lehenago gauzetan geratu zaretela...?

— Ez dut horrela denik uste. Atzo, hemen, Donostian bertan eman nuen ordu l'erdiko erreztala, abesti berri nahiz zaharrak kantatuz. Gaur, belodromoan kantatu behar nuela-ta, hiruzpallau titulu ezagun aukeratu ditui.

— Dena den, euskal kanta krisisa gogorran dago, behar bada forma aldetik inolako aldakuntzarik marmitzen jakin ez dutzelako...  
— Barkatu. Nik ez dakit kantagintzaren adierazpen formalen baiteraioneko garrantzia duen. Ba dira munduan zehar, Brussens bera lekuko, 30 urte batera aldakuntzarik gabe aritu diren kantarían, eta hor dituzu. Nere ustez, beste nonbaiten bilatu beharko genuke krisisaren arrazoiak...

Eta jarraitu zen: "behera jo du euskal kantak", "oraino egoera eta orain bost urteko kantarezi-nak dira" (konturatu ote da mutiko hori neuk 11 urte daramazkidalda kantatzen, eta Lertzundak bat, adibidez, 20)?...

Beraz, Mikel, ba dakizu: aldatu behar dugu. Nola, ordea, inon ez zaigu, inork ez digu esaten. Eta bitartean, etxean ahal dugun moduan ("oraindik bizi dituk eta kantatzen dituk" zioen lehenago egunean guri buruz Loiolako Herri-Irratiko lagun batek), txiro eta pobre, eta kanpoan abestu dugunean (azkenengo aldir, Cerdán) gu kantari erabat profesionalak ez garela sinistu ez jendeak.

— Baina, Gorka, ez diotuz inoiz zure buruari planteatu euskaraz kantatzeaz gainera, erdaraz ere kantatzeaz? Nik uste dut Euskal-errian A hizkuntza ba daudela;

frantsesa, espánola, gaskona eta euskara. Nere herrian, Balmasedan, orain dela 800 urte galdu zen euskara. Euskaraz soilki kantatzen ba duzute, zuen buruei ari zaretu mugak ezartzen, eta beste hiru hizkuntza bietan mintzo den jendeari zuen mezua ulertzea ukatzen...

— Arrazoi dukezu, Mikel. Orain arte, ezinago irmoki defenditu dugu euskaraz soilki kantatzea, eta hemen nauzu, kantari-ogibidea ezin aurrera aitezaz, hilean 2 edo 3 erreztal emanaz. Ba dugu geure publikoa, baina galdera hauxe da: horrela jarraitzen badugu, Lertzundik berriki "Euskadi" aldizkarian esaten zuena esaten bukatuko dugu? Alegia, "Euskadi hiltzen ari da, eta ni nerai ere harekin"? Ez ote da beste alternatibarik?

— Eta ez duzu inoiz erdaraz kantatzeak ofertarik jaso?  
— Noski baietz. Bainan orain arte ez dut publikoki inoiz esan. Orain, zure herri honetan horrenbeste "lilstillo" ikustean, esango dut. Ez bat eta ez bi, hiruzpallau aldir izan ditut hortarako ofertak. Bainan, Euskadi anormal honetan, era hortako ofertak onartzea ez omen da zilegi guretzat, beste batzuentzat, erdea...

— Bai...?  
— Bai, begira. Oso tristea bada ere, jarriko dizut adibide bat. Lehenago Urrian, Arrasaten, "Ikastola 81" ospatzen da, eta bertako zinema batean jaialdi bat antolatuz, Gasteizko talde batek eta... "Mocedades" taldeak kantatzen dutelarik. Ez dut galdetu, bainan pentsatzen dut euskaraz dituzten abestiak kantatuko zituztela. Bainan denok ba dakigu "Mocedades" taldea, zinema hartatik otera

bezain laister, Euskalerrian nahiz Euskalerritik kanpo erdaraz kantatzeari lotuko zela... Zer gertatu litzateke, ordea, gutako norbaitek beste horrenbeste egingo balu?

— Zaila, gaitza duzute gauza, benetan...

— Eta iluna, koba hontatik iritezko alternatibaren bat amaten ez den bitartean...

Hona, gutxi gora behera, Bilboko solasaldia. "HOJA DEL LUNES" honek eskatutakoaren arabera, musikari buruz idazten hasi baino lehen, zuei jakinaraztea interesgarri iruditu zaidana. Zuk nahi izanez gero, irakurle, gai hontara etorriko gara berriro. Bego bere hortan orainoz.

Gorka KNORR

Una conversación en Bilbao con una persona a la que conocía de oídas y a la que había leído en algunas ocasiones, Mikel Orrantía, me daba pie para comentar con cierta profundidad algunos aspectos de la crisis que aqueja a la canción en euskara. Normalmente, ciertos medios de comunicación suelen plantear el tema sobre determinados clichés, y principalmente, sobre la falta de adecuación de la canción en euskara a los tiempos en que vivimos y a una deficiencia de tipo formal.

El tema, aunque complejo, no va por ahí. Al menos yo así lo veo. Independientemente de plantear la discusión sobre algunos aspectos que soslayo de momento, y de valorar la influencia de otros la propia conceptualización de la canción en euskara (canción de la resistencia, etc.); la situación ambiental del país en estos temas (no es sólo la canción en euskara la que está en crisis); la penosa situación de los medios de comunicación (desde una perspectiva general, puesto que hay medios que nos

han ayudado, a conocer que algunos de los que la sociedad de standartzación que debe quedar todavía cantando hemos defendido... difíciles de terreno, nos erri- en el que (y en mito) nos es- (aquí, desde el cualquier persona, vidad está legiti- idioma, adem- comunicarse e- lamente es- lengua en de ginados de de- en comunicación en unas endo- mentables, sin- sorpresa a festi- último "Kilom- en Mondrago- festival en el "dades" (no he cantaron, pero nada más salte- en Mondrago- tellano, dentro

¿Qué sucedería cantantes en propio? Yo no sucedido con profesión, pero estas ofertas para y no creo que

¿Qué alternativa a decir, como hace poco en se muere y en contrario, lo que es para "plantear las Yo dejo aquí lector, para quien lo quiere estas las exper-